

JARDUKETEN MEMORIA

BIDEBI BASAURI S.L. UDAL SOZIETATEA

2012



AURKIBIDEA

1. SOZIETATEAREN HISTORIA ETA XEDEA

- 1.1. Sorrera
- 1.2. Sozietatearen xedea

2. GOBERNU ETA KUDEAKETA ORGANUAK

- 2.1. Administrazio Kontseilua
 - 2.1.1. Deiak
 - 2.1.2. Erabakiak
- 2.2. Batzar Orokorra
 - 2.2.1. Deiak
 - 2.2.2. Erabakiak
- 2.3. Langileak

3. SOZIETATEAREN EGOERA ETA HAREN JARDUERAREN BILAKAERA

- 3.1. Aurrera eramandako hirigintza jarduketak
 - 3.1.1. Dokumentuak
 - 3.1.2. Jarduketak
 - URIBARRIKO EREMUA
 - ARIZ UE 36
 - SARRATU
 - SAN MIGEL MENDEBALDEA
 - AZBARREN
 - UDAL ETXEBIZITZAK
 - KALERO BASOZELAI
 - 3.1.3. Hitzarmenak Eusko Jaurlaritzarekin
- 3.2. Kudeaketa administratiboak
 - 3.2.1. Lan-arloko kudeaketa
 - 3.2.2. Zerga eta kontabilitate-arloko kudeaketak
 - 3.2.3. Merkataritza-arloko kudeaketak
 - 3.2.4. Bestelako kudeaketak
- 3.3. Kanpo komunikazioa
 - 3.3.1. Nortasun irudia
 - 3.3.2. Herritarrei arreta ematea
 - 3.3.3. Ekitaldietara, ikastaroetara eta jardunaldietara joatea
 - 3.3.4. Prentsa

4. 2012KO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK, ETA 2013KO AURREKONTUA

1. SOZIETATEAREN HISTORIA ETA XEDEA

Merkataritza-sozietatearen sorrera:

2010eko otsailaren 22an Merkataritza-sozietatea eratzeko eskritura publikoa egin zen Ignacio de Miguel Durán notarioaren aurrean, 140 zenbakidun protokoloarekin. Horren bidez bete ziren Basauriko Udalaren Osoko Bilkurak 2009ko irailaren 24an, urriaren 29an eta abenduaren 30ean hartutako Erabakiak.

Sozietatearen xedea:

Honako hauek dira sozietatearen xedeak:

- a) Basauriko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean eta Plan Partzialetan aurreikusitako hirigintza eragiketak kudeatzea eta gauzatzea; eta, oro har, Udalak edo haren mendeko erakunde zein erakundeek beren hirigintza politika garatzeko hari agintzen dizkioten plan, egitarau eta ekintza guztiak kudeatzea eta gauzatzea.
- b) Eraikinak, etxebizitzak eta beste edozein tituluren bidez eskuratutako lurzoruetan dauden ostatu, lokal eta aparkaleku mota guztiak sustatzea, eskuratzea, kudeatzea eta bertan eraikitzea, dela babes publikoko araubidean, dela araubide librean, dela prezio mugatuan.
- c) Sozietatearen edo Udalaren titulartasunekoak diren nahiz partikularrek edo beste erakunde batzuek, haiekin hala hitzartu bada, sustatutako ondasun higigarriak edo higiezinak esleitzea eta, hala badagokio, ondasun horiek jabetzan, azalera eskubidean, alokairuan nahiz logela eskubidean ematea, edota zuzenbideak jabetza entregatzeko onartutako beste edozein modu baliatzea.
- d) Besteren etxebizitza hutsak alokatzea edo horien erabileraren lagapena sustatzea.
- e) Ondare eraikiaren birgaitzea sustatzea.
- f) Sozietatearenak diren edo Udalbatzaren titulartasunekoak izan eta sozietatearen esku utzi diren eraikinak eta gainerako ondasunak kudeatzea, zaintzea eta mantentzea, bai eta birgaitzea ere.
- g) Lehenago adierazitakoei lotutako beste edozein zerbitzu ematea edo haien osagarri diren edo haiekin loturaren bat duten jarduerak egitea.
- h) Lurzorua udal ondarearen kudeaketa dinamizatzea, lurzoru horrek duen xedea betetze aldera.
- i) Oro har, Udalak zein beste erakunde publiko eta pribatuek agindutako hirigintzaren eta lurzorua arloko kudeaketa lanak egitea eta, haiekin batera, arlo horietan jardutea eta lankidetzan aritzea.

Bere xedea betetzeko, sozietateak, Udalaren tresnatzat hartuta, honako eginkizun hauek garatu ditzake:

- a) Lurralde eta udalerria antolatzeko era guztietako azterlan, proiektu eta antolakuntza planak egitea, ondoko hauek barne: plangintza orokorrekoak nahiz partzialekoak, hirigintza kudeatzeko dokumentuak eta bere eskumenekoak diren nahiz Udaleko organo eskudunek gehigarri gisa agindutako urbanizazio eta eraikuntza proiektuak. Horrek guztiak ez du eragotziko udal organoek eta Administrazioko beste organo batzuek dokumentu horiek aurkeztu eta onartzeko dituzten ahalmenak baliatzeko aukera.
- b) Hitzarmen batzarretan jabe gisa edo Udalaren ordezkari gisa parte hartu eta egoki iritzitako erabakiak hartzea. Nahitaezko desjabetzeen onuraduna izatea, hirigintzaren kudeaketa sistema hori erabiltzen denean.
- c) Lurzorua eta beste ondasun eta eskubide batzuk eskuratzea, kudeatzea eta besterentzea garapen, ekipamendu, barne-eraberritze edo birgaitze arloko hirigintza-eragiketa integratuak edo bereiziak egiteko.
- d) Adierazitako hirigintza-eragiketa horiei lotutako urbanizazioa egitea edo urbanizazio, azpiegitura, zerbitzu, zuzkidura nahiz ekipamendu proiektuak gauzatzea.
- e) Sozietaterenak diren, hari esleitu zaizkion edo haren esku utzi diren era guztietako eraikinak, obrak eta zerbitzuak kudeatzea eta ustiatzea.

2. GOBERNU ETA KUDEAKETA ORGANUAK

2.1. ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Hona hemen Administrazio Kontseiluak 2012an zehar izandako osaera:

Lehendakaria:

Andoni Busquet Elorrieta

Lehendakariordea:

Nerea Renteria Lasanta

Kontseilukideak:

Aitor Aldaiturriaga Jiménez
Loly de Juan de Miguel
Iñaki Martínez Álvarez (2012-12-25era arte)
José Antonio Rodríguez (2012-12-26tik aurrera)
Pedro Pérez de Mendiola Asua
Cristina Ibarrola Goiri

Idazkaria eta Zuzendari Kudeatzailea:

Pedro Rodríguez Toyos

2.2. BATZAR OROKORRA

Honako hau izan da BIDEBI BASAURI SLren Batzar Orokorraren osaera 2012an zehar:

Lehendakaria:

Andoni Busquet Elorrieta

Batzarkideak:

EAJ-PNV

Nerea Renteria Lasanta and.

Asier Iragorri Basaguren jn.

Nora Pereda Aburto and.

Iñaki De Vega Martinez jn. (2012-12-27ra arte)

Txomin Carro Lopategi jn. (2013-01-31tik aurrera)

Jesús María Vadillo Estébanez jn.

Aitor Aldaiturriaga Jiménez jn.

Etorne Lexartza Goioaga

TALDE SOZIALISTA

Loly de Juan de Miguel and.

Iñaki Martínez Álvarez (2012-11-29ra arte)

Álex Val Funcia jn. (2012-12-27tik aurrera)

Begoña de Juan de Miguel and. (bertan ez zegoena)

Esteban Francos Gómez jn.

Arantza Osorno Álvarez and.

José Antonio Rodríguez Miguel jn.

Nerea Teruelo Calvo and.

BILDU

Eneritz Amezketa Rodríguez and.

Javier Valle Abrisketa jn.

Fernando Goitia Zubiaur jn.

TALDE POPULARRA

José M^a Agüeros Guevara jn.

Idoia López Martínez and.

Cristina Ibarrola Goiri and.


Idazkaria:

Pedro Rodríguez Toyos jn.

2.3. LANGILEAK

BIDEBI udal sozietateak 2010eko ekainaren 9an egindako administrazio kontseiluak sozietatearen organigrama eta langileen zerrenda hauek ezarri zituen:

A) ORGANIGRAMA



B) LANGILEAK

Kodea	Izendapena	Harreman mota
001	Kudeatzailea	Goi-mailako zuzendaritza
002	Administraria	Lan-kontratudun arrunta

3. SOZIETATEAREN EGOERA ETA HAREN JARDUERAREN BILAKAERA

3.1. EGINDAKO HIRIGINTZA-JARDUKETAK

2012an zehar BIDEBI BASAURI SL Udal Sozietateak zenbait hirigintza-ekintza burutu ditu. Horiek modu errazagoan aurkeztearren, honela sailkatu ditugu:

3.1.1 Dokumentuak

Jarraian adierazitako proiektuei buruz hausnartzeko eta txostenak egiteko lantaldeetara sartzea eta bertan parte hartzea:

- **Babes ofizialeko etxebizitzak erosteko aukerarekin errentamenduan emateari buruzko Araua**
- Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak zein araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeari **buruzko Araua**.
- **Bultzatu 2025, Eraikuntza Jasangarrirako Ibilbide Orria.**
- **Tokiko Administrazioaren arrazionalizaziorako eta jasangarritasunerako Legearen aurreproiektua.**
- **Etxebizitza Sailburuordetzaren jarraibideak.**
- **Beste batzuk.**

3.1.2 Hirigintza-jarduketak

BASOZELAI:

2012. urtearen bukaeran babes ofizialeko 96 etxebizitza haien erabiltzaile izango zirenei ematearen prozesuaren jarraipena egin zen; kopuru horren barruan zeuden Landa Doktoreak kalean aurreikusitako eraistek eragindako familiei berriro ostatu emateko 6 etxebizitzak.

Urte beraren bukaeran, 40 etxebizitza sozial haien erabiltzaile izango zirenei esleitzeko prozeduraren jarraipena egin zen; kopuru horren barruan zeuden Udalaren hirigintza-jarduketen ondorioz etxerik gabe gelditutakoei berriro ostatu emateko 8 etxebizitza (etxebizitzak 2013ko lehen hiruhilekoan eman ziren).

Aipatutako sustapenen urbanizazioan azken ukituak egiteko Eusko Jaurlaritzak plazaratutako lizitazioaren eta esleipenaren jarraipena egin da, sutapen horiek Basauriko Udalari entregatzeko eta doan lagatzeko (entrega 2013ko lehen hiruhilekoan egin zen).

ARIZ: UE 36, Uribarriko ikastegia.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren antolamendu xehatuaren aldaketa puntual bat prestatzea eta haren jarraipena egitea behin betiko onartua izaten den arte.

SARRATU:

Birpartzelazio Proiektua Jabetza Erregistroan inskribatzea.

Sarratu 5 eraistea.

Etxebizitza librerako den lurzatiaren sustatzaileekin koordinatzea. 2012. urtearen bukaerarako eraikuntza guztiaren zimenduak eta egitura jarrita zegoen 0 kotara arte. 2013ko lehen hiruhilekoan aurreikusita dago lehenengo bi atarien exekuzio proiektuaren aurkezpena egitea.

Etxebizitza babestua sustatzen duen VISESA sozietate publikoarekin koordinatzea. Babes ofizialeko 60 etxebizitza eta 90 etxebizitza sozial eraikitzeko obren lizitazioa egitea eta plikak irekitzea 2012ko abenduan.

Jarduketa honen lehenengo fasean aurreikusitako babes ofizialeko 60 etxebizitzak zozketa bidez esleitzeko prozeduraren jarraipena egitea.

VISESAk enkargua egin zigun eraikuntza-lanen bigarren faserako aurreikusitako babes ofizialeko 130 etxebizitzen aurretiazko azterlana egiteko.

Batzordeak berriz ostatu emateari dagokion indemnizazioaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsuari buruzko txostena eta errekurtsio horren jarraipena egitea.

FEVErekin negoziatzea Jabari Publikoko Eremua txikitzeari buruz, eraikitzeko muga-lerroa txikitzeari buruz eta lanak egiteko baimenari buruz.

SAN MIGEL MENDEBALDEA:

Birpartzelazio Proiektua Jabetza Erregistroan inskribatzea.

Etxebizitzen legezko biztanleei eta martxan dauden ekonomia-jarduerei berriro ostatu emateko akordioak sinatzea.

Kutsatuta egon litezkeen Erebegiko lurzatiei buruz ingurumenaren arloko agintaritzak egindako eskabidearen eta txostenaren jarraipena.

Urbanizazio-kargak finantzatzeko lehenengo derrama.

Eusko Jaurlaritzari eskaini zaio babestutako errentamenduan emateko zuzkidura-bizitokiak egiteko lurzatiaren doako lagapena.

Errementaritzarako aurreikusitako Gernika 40 pabilioia eraistea.

Babes ofizialeko 46 etxebizitza (kooperatiba erregimenean) egiteko den A lurzatiaren sustatzaileekin eta prezio tasatuko 23 etxebizitza (kooperatiba erregimenean) egiteko den D lurzatiaren sustatzaileekin koordinatzea.

Babes ofizialeko 35 etxebizitza egiteko den B udal-lurzatiaren eta mota horretako beste 55 etxebizitza egiteko den C udal-lurzatiaren lehiaketa prestatzea.

Zuzkidura-bizitokiak sustatzeari buruzko hitzarmena egitea proposatzea Eusko Jaurlaritzari.

AZBARREN:

Hirigintza Jardueraren Programari eta Hirigintza Proiektuari behin betiko onespena ematea.

Nahitaezko desjabetzeari buruzko espedientearen jarraipena egitea.

FEVErekin eraikitze muga-lerroa txikitzeari eta lanak egiteko baimenari buruz negoziatzea eta akordioa lortzea.

Etxebizitza babestua sustatzen duen VISESA sozietate publikoarekin koordinatzea.

SAN FAUSTO-POZOKOETXE:

Bilbao Ría 2000 sozietatearen hiri-birsortze jardunaren jarraipena egitea. Proiektuaren birdefinizioa aurkeztu da.

Eragindako auzokideekin biltzea.

BASKONIA:

SEPES estatuko erakundeak aurrera eramandako jarduketan jarraipena egitea: zaharkituak gelditu diren industria-instalazioak eta eraikuntzak eraistea eta kutsatutako lurak garbitzeko beharrezko lanak egitea.

UDAL ETXEBIZITZAK:

Etxebizitzaren udal-ondareari eta haren okupazio-gradu zein erregimenari buruzko analisisia.

Etxebizitza mobilizatzeko proposamena.

Prekarioak hutsaltzeko hitzarmena egitea (3, Castilnovoko Irakasleen Etxean; 1, Zuberoa kalean; eta 1, Agirre Lehendakaria kalean) eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Babestuei hitzarmen horren berri ematea.

KALERO BASOZELAI:

Zenbait exekuzio unitate aztertzea, hiri-ehuna hobetzeko eta hirigintza exekuzioa ahalbidetzeko xedearekin.

3.1.3 Hitzarmenak Eusko Jaurlaritzarekin

A. *Basauriko Udalak ETXEBIDEREen Eskatzaileen Erregistrora sarbidea izateko Lankidetzak Hitzarmena.*

2012ko apirilaren 24an sinatu zen.

Hitzarmen horrek jasotzen du bai Basauriko Udalak (Herritarrei Informazioa eta Arreta emateko Bulegoaren bidez eta Lurralde-Politika Arloaren bidez), bai BIDEBI BASAURI SLk, sarbidea izango dutela Eskatzaileen Erregistro horretara, eta etxebizitzaren beharrea dauden herritarrei aholkua eman eta haien eskabideak izapidetu ahal izango dituztela.

B. *“BIZIGUNE, Etxebizitza Hutsen Programa” kudeatzeko hitzarmena; “Etxebizitza Librearen Alokairu-Merkatuan Bitartekaritza Lanak egiteko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) Programa” kudeatzea; eta eraikitako ondarea birgaitzea zein Eraikuntzen Ikuskaritza Teknikoak egitea.*

Basauriko Udalak Eusko Jaurlaritzari proposamena egin dio, BIDEBI BASAURI SL sozietate publikoak udalerriko etxebizitza librea arrazoizko prezioan alokatu ahal izateko bitartekaritza lanak egin ditzan.

3.2. KUDEAKETA ADMINISTRATIBOAK

3.2.1. Lan-arloko kudeaketa

A. Laneko Arriskuen Prebentziorako eta Osasunaren Zaintzarako indarrean dagoen araudia beteta, GESPREVEN enpresari kontratua berritu zaio honako lan hauek egin ditzan:

- Berezitasun teknikoak.
- Osasunaren zaintza.
- Azterketa medikoak.

B. BIDEBI BASAURI SLko langileentzako bizitza aseguruua eta ezintasun iraunkor osoari zein absolutuari dagokiena berriztu dira EGIASA artekaritzarekin.

Aseguruak estaliko dituen arriskuak eta arrisku horiei dagozkien kalte-ordainak Basauriko Udaleko langileentzat indarrean daudenen berberak dira.

C. Enpresako administratzaileen, zuzendaritzaren eta langileen erantzukizunari aurre egiteko aseguru-poliza berriztu da GC BROKER artekaritzarekin urtebeterako, 2013ko urtarilaren 1etik aurrera.

D. Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legegileak jasotakoa bete da (2. artikulua: 2012ko abenduko aparteko ordainsaria. 9. artikulua: aldi baterako ezintasun egoerarako diru-laguntza).

3.2.2. Zerga eta kontabilitate-arloko kudeaketak eta kudeaketa administratiboak:

A. 2012ko martxoan zehar ATTEST enpresak sozietatearen 2011ko kontuen ikuskaritza egin zuen.

B. Enpresako langileek euren gain hartu dituzte kontabilitateari, nominei, gizarte-aseguruei eta zergak ordaintzeari dagozkien lanak. Beraz, kanpoko gestoriarik ez da kontratatu eta, ondorioz, gastua murriztu da eta areagotu egin dira kontrola eta eraginkortasuna.

C. 2012ko ekitaldiari dagokionez, Foru Ogasunaren egutegia bete da, honako zerga hauek ezarritako epean eta moduan aurkeztuta:

- BEZaren hiru hilez behingo kitapenak (303).
- BEZaren urteko laburpena (390).
- PFEZaren hiru hilez behingo kitapenak (110).
- PFEZaren urteko laburpena (190).
- Hirugarrenekin egindako eragiketei buruzko urteko aitorpena (347).
- 2011ko Sozietateen Zergaren kitapena (200).

D. Era berean, kontabilitate liburuak egin dira (2012ko ekitaldiari dagozkion Liburu Nagusia, Egunkari Liburua, Balantzeak eta kontuen egoera) eta horiek Merkataritza Erregistroan aurkeztu dira.

E. Datu Pertsonalen Babeserako Legea egokiro bete eta Datuen Babeserako Estatuko Agentziari ondoko hauen berri eman zaio: artxibatzeak, Udalaren Segurtasun Dokumentuaren aldaketa, artxiboen eta dokumentuen arduradunen eta



segurtasunaren arduradunaren izendapena, ARCO eskubideak egikaritzeko prozedura ezartzea, eta abar.

3.2.3. Merkataritza-arloko kudeaketak:

A. 2012ko maiatzaren 2an sinatu zen Sozietatearen kudeatzaile den Pedro Rodriguez Toyos jaunaren ordezkartza-ahalordea jasotzen duen eskritura publikoa, Enpresaren Estatutuen 20. artikuluan jasotako baldintzetan. Ahalorde hori Merkataritza Erregistroan inskribatu zen.

B. Era berean, ordezkoak izendatzeko hitzarmena ere eskritura publikoan jaso eta Merkataritza Erregistroan inskribatu zen, EAJ/PNV taldeak hala eskatuta.

C. Sozietateak dagozkion Akta eta Sozioen Liburuak ditu, behar bezala beteak eta eguneratuak.

3.2.4. Bestelako kudeaketak:

Pertsona batzuek sor ditzaketen arrisku egoerak ahal den neurrian ekiditeko beharra ikusita, segurtasun enpresa batekin dagokion zinpeko zaintza kontratatu da.

3.3. KANPO KOMUNIKAZIOA

3.3.1. Nortasun irudia:

- Sozietatearen webgunea eta horren esteka Udalaren webgunean. Edukiak mantendu eta eguneratu dira, bereziki jarduketei eta berriei dagokienez. Horretarako, zenbait dokumentu eta irudi txertatu dira jarduera-ildo bakoitzaren bilakaera ulertzen laguntzeko.
- Telefonogunea. Telefono sistema hobetu da, une jakin batzuetan sartu eta irteten diren dei guztiei aurre egin ahal izateko.
- ADSL linea (12 MB). ADSL linearen abiadura handitu behar izan da, ETXEBIDEn aplikazioa kudeatzeko Eusko Jaurlaritzak ezarritako betekizunei erantzuteko eta etorkizunera ASAP programa kudeatuko dela-eta.
- Kartelak. Sozietatearen bulegoetako sarreran ETXEBIDE zerbitzua eskaintzen dela aditzera ematen duten kartelak jarri dira, bai eta enpresaren helbide elektronikora *smartphone* bidez sartzeko aukera ematen dutenak ere, QR kode bat bistaratuta eta kapturatuta.
- Erreklamazio-orri ofizialak hornitzea eta horiek jendearen esku jartzea.


3.3.2. Herritarrei arreta ematea:

Atal honetan BIDEBI BASAURI SLk bezeroei eskainitako arreta jasota dago, modu eskematikoan eta laburbilduta. Datuak kontsulta egiteko bidearen, kontsulta-motaren eta, azkenik, kontsulta egin duen pertsona-motaren arabera sailkatuta daude.

Kontsulta motaren arabera

Kontsulta mota	Zk.
Eskaintza komertzialak	103
Beste erakunde batzuk	56
Etxebide (irailaren 18ra arte)	75
Lana bilatzea	1
Etxebizitza librea	2
Jardute eremuak	4
Beste zenbait	2
Guztira	243


Hileka, kontsulta egiteko erabilitako bidearen arabera eta kontsulta egin duen pertsona-motaren arabera

Data	Kontsulta egiteko bidea 	Pertsona-mota		Guztira
		Partik.	Enpr.	

Urtarrila	0	3	17	15	5	20
Otsaila	7	9	9	14	11	25
Martxoa	4	14	20	23	15	38
Apirila	4	6	7	11	6	17
Maiatza	1	11	3	5	10	15
Ekaina	1	12	13	14	12	26
Uztaila	1	11	15	16	11	27
Abuztua	1	5	3	6	3	9
Iraila	3	15	12	15	15	30
Urria	1	10	7	12	6	18
Azaroa	0	6	6	8	4	12
Abendua	0	3	3	3	3	6

Guztira	23	105	115	142	101	243
----------------	----	-----	-----	-----	-----	-----

ETXEBIDERen kudeaketa (irailaren 19tik aurrera):

Data	Kontsulta egiteko bidea 	ETXEBIDERen kudeaketa						Guztira
		Alta	Aldak.	Berrizt.	Baja	Dok.	Inf.	

Iraila	1	0	10	2	3	1	0	0	5	11
Urria	6	3	43	8	4	0	1	0	39	52
Azaroa	4	1	46	6	5	1	0	5	34	51
Abendua	2	0	32	7	4	0	1	2	20	34

2012. urtea	13	4	131	23	16	2	2	7	98	148
-------------	----	---	-----	----	----	---	---	---	----	-----

3.3.3. Ekitaldietara, ikastaroetara eta jardunaldietara joatea

BIDEBI Balorazioei buruzko Mintegian

BIDEBIk Lurzoruaren Legearen Erregelamenduak jasotako balorazio formulak urriaren 24ko 1492/2011 E.D arabera praktikan jartzeko HAEE-IVAPek antolatutako mintegian parte hartu zuen. Mintegia Lakuan egin zen, urtarrilaren 16an eta 17an.

BIDEBI ETA BIRGAITZEA

BIDEBIk “BIRGAITZEA: HIRIGINTZAREN ERRONKA POLITIKOA” jardunaldietan parte hartu zuen. Jardunaldi horiek Eudelen Bilboko egoitzako Ekitaldi Aretoan egin ziren, otsailaren 15ean.

BIDEBI eta AVS

BIDEBI BASAURIk AVS Etxebizitza eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Espainiako Elkartearen Euskal Atalaren Biltzarrean parte hartu zuen. Biltzar hori 2012ko otsailaren 21ean egin zen, VISESaren Gasteizko egoitzan.

BIDEBI eta FORUM EUROPA

BIDEBIk FORUM EUROPA Tribuna Euskadik antolatutako jardunaldi informatiboan parte hartu zuen. Jardunaldiaren aurkezpena Patxi López Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak egin zuen, eta Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailburuak ere bertan parte hartu zuen. Ekitaldia Bilboko Ercilla Hotelean egin zen, otsailaren 29an.

BIDEBI eta ETXEBIZITZA SAILA

BIDEBIk Euskadiko eraikin parkean esku hartzeko premiari buruzko Jardunaldietan parte hartu zuen. Jardunaldi horiek Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak antolatu zituen eta Jaurlaritzaren Bilboko Ordezkaritzaren Ekitaldi Aretoan egin ziren, 2012ko martxoaren 7an.

BIDEBI eta BIRGAITZEA

BIDEBI BASAURI SL enpresak OARSOALDEA SAK birgaitzeari buruz antolatutako bileran izan zen. Bilera hori Pasaian egin zen 2012ko martxoaren 22an.

BIDEBI eta AVS

BIDEBI BASAURI SLk parte hartu zuen AVS Etxebizitza eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Elkartearen Batzar Orokorrean, Aranjuezen egin zena apirilaren 18an.

BIDEBI eta EUDEL

BIDEBI BASAURI SLk parte hartu zuen Tokiko Zuzenbideari buruzko euskal mintegian, Bilbon egin zena 2012. urtean zehar.

BIDEBI eta Q-EPEA

BIDEBI BASAURIk Herri Administrazioen Kudeaketaren Bikaintasunari buruzko IV. Biltzarrean parte hartu zuen. Biltzarra maiatzaren 17an eta 18an izan zen, Bilboko BECen.

BIDEBI eta EUDEL / HAEE-IVAP

BIDEBI BASAURIk “Birgaitze eta ordezkatzeko eragiketetan berriro ostatu ematea kudeatzeko marko juridikoa” gaiaren gaineko prestakuntza jardunaldian parte hartu zuen, HAEE-IVAPek (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak) eta EUDELEk (Euskadiko Udalen Elkarteak) antolatu zutena maiatzaren 21ean, Bilbon.

BIDEBI eta EUSKO JAURLARITZA

BIDEBI BASAURIk eta BIDEBI BASAURI-FAMILIA ZORPETZEAK gonbidapena jaso zuten “Familiaren gain-zorpetzea” jardunaldian parte hartzeko. Jardunaldi hori Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak antolatu zuen maiatzaren 22an, Gasteizen.

BIDEBI eta ENERGIA ERAGINKORTASUNA

BIDEBI BASAURIk parte hartu zuen “Ia energia-kontsumorik ez duten eraikinak: eraikuntza berriak eta birgaitzeak” hitzaldi-eztabaidan. Hitzaldi hori maiatzaren 24an egin zen, GENERA izeneko Energia eta Ingurumeneko Nazioarteko Azokan, Madrileko Feriako (IFEMAko) entzun-aretoan.

BIDEBI eta AVS

BIDEBI BASAURIk AVS Etxebizitza eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Espainiako Elkartearen Euskal Atalaren Biltzarrean parte hartu zuen, VISESaren Gasteizko bulegoetan egin zena maiatzaren 29an.

BIDEBI eta EPSA

BIDEBIk “Bikaintasunaren Hiriak Arlo Publikoan: punta-puntakoak berrikuntzan eta jarduera zein formula berrietan” jardunaldietan parte hartu zuen, Bilboko Alondegian egin zirenak ekainaren 4an eta 5ean.

BIDEBI eta EUSKO JAURLARITZA

BIDEBIk parte hartu zuen “Bultzatu 2025 Eraikuntza Jasangarrirako Ibilbide Orria kontrastatzea” lan-jardunaldian, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak Euskalduna Jauregian antolatutakoa ekainaren 8an.

BIDEBI eta EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailburu den Iñaki Arriolak gonbidatuta, BIDEBIk “Zurekin gehiago gara” etxebizitza politikari buruzko mahai-inguruan parte hartu zuen, Bilboko Indautxu Hotelean egin zena 2012ko ekainaren 22an.

BIDEBI eta EHU

Bidebik “Hiri-joerak: hiri baten jokalekuak krisi garaian” izeneko Biltzarrean parte hartu zuen. Biltzarra Euskal Herriko Unibertsitatearen Bilboko Paraninfoko Baroja Aretoan egin zen, ekainaren 25ean eta 26an.

BIDEBI eta EUSKO JAURLARITZA

BIDEBIk parte hartu zuen BULTZATU 2025ek “Eraikuntza jasangarrirako Ibilbide Orria 2025” jardunaldian, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garaiko Sailak antolatu zuena Euskalduna Jauregian, uztailearen 11n.

BIDEBI eta AVS

BIDEBI BASAURI SLk parte hartu zuen AVS Etxebizitza eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Elkartearen Euskal Atalaren Batzar Orokorrean, Gasteizen egin zena irailaren 18an.

BIDEBI eta AVS

BIDEBI BASAURIk parte hartu zuen AVSk Tokiko Administrazioaren arrazionalizaziorako eta jasangarritasunerako Legearen Aurreproiektua aztertzeko lantalde juridikoan, Madrilén bildu zena urriaren 4an.

BIDEBI BASAURI eta BIRGAITZEA

BIDEBI BASAURIk parte hartu zuen Euskal Herriko Hirigintza-Birgaitze Sozietateen urteroko bigarren batzarrean, Arrasaten egin zutena urriaren 10ean.

BIDEBI BASAURI eta IHOBE

BIDEBI BASAURIk parte hartu zuen Lurzoruaren Babesari buruzko Nazioarteko Biltzarrean, IHOBE Sozietateak antolatutakoa eta Euskalduna Jauregian egindakoa urriaren 22an eta 23an.

BIDEBI BASAURI eta ALOKAIRU SOZIALA

BIDEBI BASAURIk parte hartu zuen “Etxebizitza sozialaren alokairu ereduaren erronkak 2020: jasangarritasuna, finantzaketa eta gizarte-teknologia” jardunaldietan parte hartu zuen, Bilbao Etxebizitzak-ek eta AVS Sustatzaile Publikoak-ek antolatutakoak.

BIDEBI BASAURI eta BERRIKUNTZA

BIDEBI BASAURIk parte hartu du “Berrikuntza, gizakia abiaburu: etorkizunerako apustua” jardunaldian, SESTA BERRIk antolatu zuena Bilboko Bolunta Eraikinean azaroaren 15erako.

BIDEBI BASAURI eta EUSKAL HIRIA

BIDEBI BASAURIk Euskal Hiriari buruzko jardunaldietan parte hartu zuen. Jardunaldi horiek Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak antolatu zituen Euskalduna Jauregian, 2012ko azaroaren 26an eta 27an.

BIDEBI BASAURI eta AVS

BIDEBI BASAURIk parte hartu zuen AVS Etxebizitza eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Espainiako Elkartearen Euskal Atalaren Biltzarrean, Gasteizko VISESaren bulegoetan egin zena azaroaren 27an.

3.3.4. Prentsa

BIDEBI zenbait aldiz aipatu dute prentsan eta beste komunikabide batzuetan, 2012an zehar.

4. 2012KO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK, ETA 2013KO AURREKONTUA

- 2012ko ekitaldirako aurrekontua.

BIDEBI BASAURI SL-REN AURREKONTUA 2012

Kapitulua eta saila	Aurrekontu saila	DIRU-SARRERAK	Kontzeptua
4. kapitulua: Udalaren transferentzia arrunta	43310	210.000,00 €	Transferentzia / Diru-laguntza
4. kapitulua: Eusko Jaurlaritzaren transferentzia arrunta		120.000,00 €	Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzaren hitzarmena izapidetzen
7. kapitulua: Kapitalaren transferentzia	73310	170.000,00 €	Transferentzia / Diru-laguntza
GUZTIRA		500.000,00 €	

Kapitulua eta saila	GASTUAK	Kontzeptua
1. kapitulua: Langileak	150.000,00 €	Oinarrizko ordainketak, gizarte segurantzaren eta bestelako gizarte gastuak (zuzendari kudeatzailea eta idazkaria)
	12001	Oinarrizko ordainketak (zuzendari kudeatzailea eta idazkaria)
	16001	Gizarte segurantzaren (zuzendari kudeatzailea eta idazkaria)
	16002	Bestelako gizarte gastuak (zuzendari kudeatzailea eta idazkaria)
	16301	Langileen prestakuntza eta hobekuntza
	16305	Aseguruak
2. kapitulua: Ondasun arruntaren eta zerbitzuen arloko gastuak	180.000,00 €	
	150.000,00 €	Azterlanak egiteko eta idazteko laguntzak
	30.000,00 €	Gastuak: dietak, bestelako gastuak...
	22001	Inbentariora biltzekoa ez den material arrunta
	22002	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpenak
	22202	Posta bidezko komunikazioak
	22602	Protokolo eta ordezkariaren arloko ardurak
	22603	Argitalpenak eta propaganda
	22605	Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak
	22620	Obren betearazpen subsidiarioa
	22698	Beste zenbait gastu
	22702	Azterlanak eta lan teknikoak
	22718	Zerbitzu juridikoak kontratatzea
	22722	Zerbitzu ekonomikoak kontratatzea
	23001	Dietak, lokomozioa eta lekualdatzeak
6. kapitulua: Inbertsio errealeak	170.000,00 €	Proiektuak idaztea eta urbanizazio-kargak hirigintza-jarduketetan
		Proiektuak idaztea hirigintza-jarduketetan
		Obren exekuzioa hirigintza-jarduketetan
GUZTIRA	500.000,00 €	

Honako hau izan da diru-sarreraren aurrekontuaren bilakaera sozietatearen sorreratik 2012. urteko ekitaldira arte:

Diru-sarreraren kontzeptua	2009	2010	2011	2012
Kapital ekarpena	60.000,00 €			
----		0,00 €		
Udala, IV. kapitulua			210.000,00 €	
Udala, VII. kapitulua			170.000,00 €	
Udala, IV. kapitulua				210.000,00 €
Eusko Jaurlaritza, IV. kapitulua				120.000,00 €(*)
Udala, VII. kapitulua				170.000,00 €
Guztira	60.000,00 €	0,00 €	380.000,00 €	500.000,00 €

Zenbateko horiek honako arrazoi hauei erantzuten diete:

- 2009ko ekitaldiko aurrekontuak 60.000.000 €-ko aurrekontu izendapena aurreikusi zuen bakarrik, alegia, sozietatea eratzeko beharrezkoa zen kapital-ekarpena.
- 2010eko ekitaldiko aurrekontuak ez zuen aurrekontu izendapenik jaso, sozietateak ez baitzien bere jarduerari ekin urte horretako urrira arte (formalki eratu, 2009an eratu bazuten ere).
- 2011ko ekitaldiko aurrekontua 380.000.000 € izan zen.
- 2012ko ekitaldiko aurrekontua 500.000.000 € izan zen, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketan parte hartzea aurreikusi baitzen (*).

(*) Basauriko Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak 2011ko apirilaren 5ean Hitzarmena sinatu zuten Basauriko etxebizitza babestuen programaren jarraipena eta eguneratzea egin eta programa horren kudeaketa hobetzeko xedearekin. Ekarpn hau ez da egin.

- Sozietatearen 2013ko ekitaldirako aurrekontuaren proposamena egin eta hura onestea.

Ez da proposamenik egin, BIDEBI BASAURI SLren sozio bakarra Basauriko Udala baita eta bertan aurrekontuen luzapena egon baita.